



MARTUTENE
Ramon Saizarbitoria

2022ko EKAINAREN 8an

BILBOKO ARRIAGA ANTZOKIAN
Klasikoen XV. Irakurketa Jarraitua
Bilbo Zaharra euskaltegia

AURKIBIDEA

I.	HELBURUAK	2.or.
II.	GONBITA: KLASIKOEN XV. IRAKURKETA JARRAITUA (B1)	3. or.
III.	KLASIKOA LITERATURAN	4 - 5.orr.
	A. KLASIKOA	
	B. EUSKAL KLASIKOAK	
IV.	RAMON SAIZARBITORIA: LEHEN HURBILKETA	6.or.
V.	RAMON SAIZARBITORIAREN BIOGRAFIA: ZENBAIT ZERTZELADA	7 - 8.or.
VI.	<i>MARTUTENE</i> ELEBERRIA	9 - 12.or.
VII.	ELEBERRIAREN LABURPENA	13 - 15.or.
VIII.	ELEBERRIKO PERTSONAIK	16 - 17.orr.
IX.	ERANTZUNAK	18 - 19.or.
X.	ERABILITAKO TESTUAK	20. or.

I. HELBURUAK

Honako jarduera-sekuentzia honek Klasikoen XV. irakurketa jarraituaren berri eman eta Ramon Saizarbitoriaren lana ezagutzera ematea du helburu.

HELBURU ZEHATZAK

- ❖ 2022ko ekainaren 8an Bilboko Arriaga antzokian izango den Klasikoen XV. irakurketa jarraituaren berri ematea.
 - ❖ Ramon Saizarbitoria idazlea hobeto ezagutzea eta haren lanaren balioa eta garrantzia azpimarratzea.
 - ❖ *Martutene* liburuaren garrantziaz jabetzea.
 - ❖ Liburuaren zenbait pasarte irakurriz edota entzunez, ikasi eta gozatzea.
 - ❖ Irakurketan ikasleek izango duten esperientzia errealera hurbiltzea.
- Jarduera gehienak B2 mailatik aurrera egitekoak dira.

II. GONBITA: KLASIKOEN XV. IRAKURKETA JARRAITUA (B1)

BILBO ZAHARRA euskaltegiko ikasle-irakasleek *Klasikoen irakurketa jarraitua* antolatuko dute hamabosgarrenez, ikasturtearen amaieran eta “Ikasleen jaia” ospakizunaren barruan. Irakurketa eta jaia.

Literatura-jardunaldi berezia izaten da. Urtean behin, euskarazko liburu *klasiko* bat irakurtzen dute 400 bat lagunaren artean. Irakurle bakoitzak pasarte labur bat irakurtzen du eta, ondoren, hurrengoari ematen dio txanda. Aurten, antolamendua egoerari egokitu eta osasun-neurri guztiak bermatuta, Bilboko Arriaga antzokian izango da, goizeko zortzietatik arratsaldeko ordu biak arte.

Aurreko urteetan, Axularren *Gero*, Mogelen *Peru Abarca*, Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*, Joseba Sarrionandiaren *Narrazio Guztiak*, Franz Kafkaren *Metamorfosia*, Itxaro Bordaren *% 100 Basque*, Txomin Agirreren *Kresala*, Anjel Lertxundiren *Otto Pette*, Mariasun Landaren *Ipuin hautatuak*, Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae* eta, aurten, Ramon Saizarbitoriaren *MARTUTENE*.

“Martutene garai oso bati amaiera ematen dion eleberria da. Agortezina da, eta aukera ematen digu euskal mundua definitzen duten diskurtso gehienak interpretatzeko”

Munta handikoa, dudarik gabe, **ekainaren 8an**, eta, beti bezala, Bilboko **Arriaga antzokian** aurrera eramango duten irakurketa-jaialdia. Hainbat irakurle, berrogeita hamar Euskal Etxe, hainbat eragile sozial... Irakurle zein entzule, **denok zaudete gonbidatuta literatura eta euskara uztartzen dituen festa honetara.**

Aurreko urteetan egindakoaren erakusgarri, [hemen](#).

III. KLASIKOA LITERATURAN

A. KLASIKOA

Klasikoen irakurketa egingo dela adieraztean, ba ote dakigu zertaz ari garen. Zer da klasikoa?

Hiztegiira jotzen badugu, Euskaltzaindiaren hiztegian honela definituta agertuko zaigu:

Klasikoa, Bereziki literaturan, artean, musikan, dantzan, antzerkian eta zineman, denboraz gaindi eredugarritzat jotzen diren lanak biltzen dituen adjektiboa da. Estetikaren ikuspegitik, klasikoaren ideia perfekzioari loturik dago, eta edozein alditako edo arte motatako obrarik onenak adierazteko erabiltzen da. Aldi berean, arte estilo batek heldutasuna edo goren puntua iristen dituen aldiari deritzo klasiko; primitibotzat edo arkaikotzat hartzen den aldiari jarraitu ohi zaio eta, hasierako indarra galdurik, gehiegikerian erortzen den barroko, manierista edo dekadentea esan ohi zaion aldiaren aurrekoa izaten da.

Adiera hertsia goan, Antzinateko Greziako eta Erromako arte edo kulturari jarraitzen dionari, edo haren eragina duenari, deritzo klasiko, halakotzat hartu baitzen arte, kultura eta zibilizazio greko-erromatarra Errenazimentuan (XV. mendean).

a. Baina, zer da klasikoa? Ahalegindu zure definizioa ematen, gero, talde txikietan, batu eta komentatu.

b. Jarraian, zenbait autore famatuk emandako definizioak dituzu. Zeinekin zatoz bat eta zeinekin ez? Zergatik?

Italo Calvinok, Italiako idazleak, honela definitu zuen zer den klasikoa: “*Liburu klasikoak inoiz ez du lortzen esan nahi duena esatea*”.

José Raul Jaramillo irakasle eta editore kolonbiarrak, aldiz, beste honela definitu du: “*klasikoak zer edo zer berri erakusten didaten eta hunkitzea lortzen duten liburu edo idazleak dira. Ez du inporta garaia, izan daiteke aurten argitaratutako liburua edo 1500. urtean plazaratutakoa, baina barrua ukitzea lortzeko gaitasuna badu, klasiko baten aurrean nagoela jakin badakit*”.

c. Hona hemen klasikotzat hartzen diren 8 idazle:

- | | |
|------------------------|---------------|
| a. MIGUEL DE CERVANTES | (1547 - 1616) |
| b. SADEKO MARKESA | (1740 - 1814) |
| c. GOETHE | (1749 - 1832) |
| d. JANE AUSTEN | (1775 - 1817) |
| e. MARY SHELLEY | (1797 - 1851) |
| f. VICTOR HUGO | (1802 - 1885) |
| g. CHARLES DICKENS | (1812 - 1870) |
| h. HERMAN MELVILLE | (1819 - 1891) |

Irakurri duzu idazle horien libururik? Zein? Zergatik? Zein da zure iritzia liburuaren inguruan? Betetzen dituzte *Klasiko* izateko baldintzak? Komentatu ondokoarekin eta ateratako ondorioak azaldu kide guztien aurrean.

B. EUSKAL KLASIKOAK

a. Ezagutzen duzue euskal idazlerik? Zergatik dituzue ezagun? Zein izan zen euskaraz irakurri zenuten lehen liburu/eleberri/ ipuina? Zerk bultzatu zintuzten irakurtzera? Azaldu zeren ingurukoa zen eta adierazi gustatu zitzaizuen ala ez? Zergatik?

b. Aipatu dituzuen idazle horietatik, zein izango litzateke “klasikoa”, aurreko definizioak kontuan hartuta?

c. Jarraian, euskal idazle batzuen izenak dituzue. Horietatik, zein hartuko zenituzkete klasikotzat? Zertan oinarritu zarete sailkapen hori egiteko?

ITXARO BORDA
BERNARDO ATXAGA
RAMON SAIZARBITORIA
JON MIRANDE
MOGEL
TXOMIN AGIRRE
GABRIEL ARESTI
ANJEL LERTXUNDI
ARANTZA URRETABIZKAIA
BERNART ETXEPARE

d. Irakurri duzue horiek idatzitako ezer? Noiz? Zergatik? Zer iruditu zaizue?

IV. RAMON SAIZARBITORIA: LEHEN HURBILKETA

Ramon Saizarbitoriak 2012an idatzi zuen *Martutene*. Idazlearen biografia laburra irakurri aurretik, hainbat argitalpenetan hari buruz idatzitako pasarte batzuk irakurriko ditugu:

Euskal kultura gaur (*Jakin*, 1997) liburuan Joan Mari Torrealdaik euskal idazleen artean egindako inkestaren arabera, azken 20-25 urteotako 10 euskal obra “hoberenen” artean *Hamaika pauso*, *Espainolak eta euskaldunak*, *Ehun metro*, *Gizona bere bakardadean* eta *Ni ez naiz hemengoa* zeuden. Hau da, hautatuen erdiak zuzen-zuzenean gatazkari lotuak zeuden (beste bostak *Obabakoak*, *Otto Pette*, *Narrazioak*, *Babilonia* eta *Azukrea belazeetan* ziren). Ildo berean, inkesta horren arabera, hamar idazle “hoberenak” Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Ramon Saizarbitoria, Joseba Sarrionandia, Joan Mari Irigoien, Koldo Izagirre, Txillardeggi, Joxe Austin Arrieta, Joxe Azurmendi eta Juan Mari Lekuona ziren.

Mikel Soto

Koldo Izagirre zapataren azpiko txikleka bezain gozoa da, Anjel Lertxundi zaldirik gabeko zalduna, Xabier Lete sagardotegiak nahiago dituen filosofoa eta Ramon Saizarbitoria Japoniako zetaz bildutako makila. Laurek dute hala ere puntatik puntara eta konkretutik abstraktura salto egiteko gaitasun berezko hori. Bakoitza bere lekuan dagoelarik zelan mugitzen diren ikusi ahal izatea nahikoa arrazoi sendoa da liburua erosteko, beste arrazoiak arrazoi.

Igor Estancona

“Ramon Saizarbitoria, euskal idazlerik onenetakoa eta dudarik gabe dotoreena, maisua da, halaber, gazteak eta xaharrak epatatzen, inor baino guayago eta iraultzaileago agertzen, tarteka”.

Xabier Mendiguren Elizegi

“Euskal idazleen artean mirespen bat aitortu behar dut eta hori Ramon Saizarbitoria da. Ramonek goi sukaldaritzaz egiten du”.

Arantxa Urretabizkaia

Nola hustu ote da gure literaturaren sakona?

Martutene-k arintasuna, samurtasuna, xalotasuna falta izan duen belaunaldi baten —batzuen— bukaera dakar, azken bidaiaren kontaketa geldoa. Solemnidadeak, zeregin handietarako deituak ginelako uste okerrak bizi izan gaitu urte luzeetan —Aberria maitatu, Aberria defendatu, Aberria sendatu, Aberria esplikatu, militantzia orok dakarren nekearekin—, eta orain, giza sentimendurik behinenaren altzoan hartu nahi dugu atseden: txera; eta txerarekin batera gauza ttipiekiko plazerra —plazerra, bai, zera ominoso hori—: te kikatxoa batek, kale-bueltaxka batek, txokolate pixka batek damaigukeena, esaterako.

Jokin Muñoz

Testuak irakurrita, nolakoa irudikatzen duzu zuk Ramon Saizarbitoria idazlea? Aukera itzazu hari buruz adierazgarriak iruditu zaizkizun hitz, molde edo adjektiboak eta hemen idatzi:

.....
.....
.....

.....
.....
.....

V. RAMON SAIZARBITORIAREN BIOGRAFIA: ZENBAIT ZERTZELADA

Egilearen bizitzari buruz zerbait zehatzagoa jakin nahian, bi iturritara jo dugu. Hona hemen bi helbideotan Ramon Saizarbitoriari buruz irakur dezakezun informazioa :

A testua



Ramon Saizarbitoria (Donostia, 1944). Soziologoa. Gizarte Zerbitzuen arloan liburu ugari argitaratutakoa. SIIIS Dokumentazio eta Ikerketa zentroko zuzendaria. Bere traiektoria profesionala dela eta Eusko Jaurlaritzaren I. Sustatu saria eskuratu zuen 1994an. 60ko urteetatik aurrera euskal hedabide gehienetan hartu du parte. 1967an Lur argitaletxea sortu zuen beste idazle batzuekin batera, eta 70eko urteetan Oh Euzkadi Literatur aldizkaria. 1992an IV. Rikardo Arregi kazetaritza saria irabazi zuen. 1971n *Kapitaina* ipuin aipagarria argitaratu zuen *Hegatsez* liburuan. Nobelagile gisa da, halere, ezagunago: *Egunero Hasten Delako* (1969), *Ehun Metro* (1976), *Ene Jesus* (1982) Kritika Saria, *Hamaika Pauso* (1995) Kritika Saria eta *Bihotz bi* (1996) Kritika Saria. *Aberriaren alde (aberriaren kontra)* saio aipagarria 1999koa da. *Gorde nazazu lurpean* (2000) Kritika Saria eta Euskadi Literatura Saria 2001, *Gudari zaharraren gerra galdua* (2000), *Rossetti-ren obsesioa* (2001), *Bi bihotz, hilobi bat* (2001) eta *Kandinskyren tradizioa* (2003), *Martutene* (2012), *Lili eta biok* (2016) eta *Miren eta erromantizismoa* (2019) dira egilearen azken liburuak.



Esan, irakurri berri duzun testuaren arabera, Ramon Saizarbitoriari buruzko hurrengo esaldiak EGIA ala GEZURRA diren:

		EGIA	GEZURRA
1.	Ramon Saizarbitoriak eleberriak baino ez ditu idatzi.		
2.	Donostian jaioa da Saizarbitoria.		
3.	Berak bakarrik jarri zuen martxan Lur argitaletxea.		
4.	Olerkaria ere bada Ramon Saizarbitoria.		
5.	“Ehun metro” filmaren gidoia idatzi zuen Ramonek.		

B testua

RAMON SAIZARBITORIA



Donostia (1944)

Donostiako idazle aski ezaguna. Larramendi kalean bizi izan zen umetan. Aita Mutrikukoa zuen eta ama azkoitiarra. Bi senide ziren. Fraide korazonistetan ibili zen eskolan, ez oso gustura. Rikardo Arregirekin hasi zen kultur jardueratan parte hartzen, Zeruko Argian kolaborazioak egiten. Jarrai antzerki taldean ibili zen, baita irratan ere. Baina batez ere literatura jardunarekin eman zuen zeresana: "Egunero hasten delako" liburuarekin (1969) euskal nobelagintza modernizatu zuen; "Ehun metro" eta "Ene Jesus" etorri ziren ondotik, berritzaileak horiek ere. Lur argitaletxearen bultzatzaileetako bat da. 70eko hamarkadaren bukaeran "Oh Euzkadi" aldizkaria ere sortu zuten Koldo Izagirrek eta biek. Soziologoa da ikasketaz eta ogibidez. Gros auzora ezkondu zen. Etenaldi luze baten ondoren, idazten jarraitu zuen; besteak beste "Hamaika pauso" eta "Gorde nazazu lurpean".



Konpara itzazu irakurri berri dituzun bi testuak eta esan:

1.- Zertan dira ezberdin bi testuok?

.....

2.- Zein izan da, zure ustez, bi testuok desberdinak izateko arrazoi nagusia?

.....
.....

VI. MARTUTENE ELEBERRIA

- a. Eleberriari helduko diogu orain, baina ezertan hasi aurretik, izenburuari berari erreparatuko diogu. Ba al dakizu nondik datorkion izenburu hori eleberriari?

.....

Zergatik jarriko ote zion idazleak izenburu hori?

.....

- b. Jarraian, eleberriari buruz idatzitako hainbat testu irakurri ahal izango dituzu:

<p>Martutene Ramon Saizarbitoria idazleak 2012 urtean plazaratu zuen euskarazko eleberri luzea da, bi bikoteren baitako harremanak kontatzen dituena, atzerritar neska gazte bat tarteko. Bikote-harremanak kontatzeaz gainera, beste hainbat arlo jorratzen dituen eleberria da: idazlearen lana, medikuntza eta osasungintza eta Euskal Herriko gatazka besteak beste. Donostian girotuta dago, Martin eta beste zenbait pertsonaia Martutene auzoko etxe batean kokaturik. <i>Martutene</i> eleberrian Max Frischen <i>Montauk</i> eleberria erreferentzia nagusia da: atzerritar neskaren izena Lynn da, Frischen liburuko pertsonaia nagusia bezalaxe eta <i>Montauk</i> liburua bera <i>Martutene</i> eleberriaren hari nagusietako bat dela esan daiteke. Bederatzi urtez lanean eman zituen Ramon Saizarbitoriak eleberria osatzen, <i>Kandinskyren tradizioa</i> 2003 urtean plazaratu ondoren eta egundaino idatzi duen lan luzeena da. Kritiko zenbaiten arabera, euskal literaturaren azken aroetako eleberri onena da.</p> <p style="text-align: right;">Wikipedia</p>	<p>Ez da nabarmena Ramon Saizarbitoriaren <i>Martutene</i> eleberria euskaraz idatzitako lanik onenetakoa dela esatea. Bere idazle ibilbidea diktadura garaian abortuaren legalizazioa aldarrikatzen zuen liburuarekin (1969an) hasi bazen ere, <i>Martutene</i> belaunaldi baten eleberria da, Gerra Zibiletik eta nobelako protagonistak Max Frischen <i>Montauk</i> (1975) liburuaren gaztelaniazko itzulpena erostea lortu duen unera arte doana.</p> <p>Idazlan honetan idazleak arreta handia eskatzen dio irakurleari; izan ere, euskal literaturan ohikoa ez den sinbologiaz betetako lana idatzi du.</p> <p style="text-align: right;">Insula 2013(Moldatua)</p>
---	--

Eleberriari buruzko erreferentzia horiek irakurrita, zer nolako argudioa duela uste duzu?

- a) Maitasun harreman oinarri duena
- b) Gorroto harremanetan oinarrituta dagoena
- c) Euskal gatazka azaltzen duena
- d) Gizon eta emakumeen arteko komunikazioa ardatz duena

- c. Jarraian, idazleak berak egindako liburuaren aurkezpen laburra ikusiko duzu:
[Martutene](#)



Bideoa ikusi ondoren, esan ahal duzu zer gai azalduko diren eleberrian?

.....
.....

- d. Aurreko guztia irakurri eta ikusi ondoren, egin argumentuaren aurrerapen labur bat.

.....
.....
.....
.....
.....

- e. Jarraian liburuaren sinopsia duzu. Beltzez dauden hitzen sinonimoa aukeratu behar duzu.

*Martutene. Dadoa zenbait aldiz **1 jaurti** ondoren, bosta atera da: Julia, Martin, Pilar eta Abaitua dira lau **2 kantoietako** puntuak; erdikoa, Lynn. Julia itzultzailea da, Martin, idazlea; Pilar eta Abaitua medikuak. Berriro osatzeko (edo desegiteko) prozesuan dauden bi bikote. Horretan, neska amerikar bat **3 agertzen** da haien bizitzan; soziologoa da, Max Frischen eleberri bateko protagonistaren izena du. Lynnek ez du nahi, baina aspalditik lokartuak zeuden harreman haien **4 zimenduak** astinduko dituzten erreakzioak abiaraziko ditu haiengan: alaitasuna, desira eta bizi berri bati ekiteko poza eta ilusioa.*

Lynnen presentziak ematen dio Juliari falta zitzaion ausardia; idazleari, azken maite-jolasekin amets egiteko aukera; Abaituari **5 kulpa** astun batetik askatzeko modua, eta askapen zoriontsu horri esker zentzu **6 duinagoa** eta beteagoa emango dio bizitzari. Pilarri, bere aurkariari, bere zoria erabakitzeke **7 eginkizuna** utziko dio.

Lynnen “Fly away” (zoaz hegan) melodiko eta askatzaileak, beste hainbat doinu gozo, **8 zakar**, triste edota mingarriekin batera (abertzaleen istorioak, gerrakoak, indarkeria eta heriotza-kontuak) eleberri guztia igarotzen du, hasieratik “coda”raino. Amaieraren aurretik, ordea, geralditxo bat egiten da, azkeneko aldiz, guduaren osteko paisaia aztertzeke. Protagonista batzuk hegan abiatuko dira, beste batzuk lurrian geratuko dira, erremediorik gabe. Lynn, noizbait aingeru askatzaile, gaur heroi lurreratu, oroimenaren aingeruaren besoetan datza orain, eleberri bikain, **9 zuhur** eta zirraragarri honetako protagonista (eta irakurle) ororen gainean **10 hegaldatuz**.

Ramon Saizarbitoriak bere eleberri onena idatzi du (intimoena?), eta ez da kasualitatea izan, erreferentzia gisa, Frischen eleberri bat hartu izana, izenburuan leku-izen bat daramana hura ere, Montauk, non, asteburu bat eta azken maitasun-istorio bat kontatzeko aitzakiarekin, bere bizitzaren errepassoa egiten baitu egileak. Saizarbitoriak ere atzera begiratzen du, bere paisaiak dakartza gogora, dagoeneko existitzen ez den Donostia, aro baten amaiera, zorionekoa, indarkeriaren azkenarekin batera etorri delako, baina gauza gehiegi utzi dituen atzean...

111 Akademia 2012/01/01

1. jaurti

- a) ikusi
- b) egotzi
- c) jaso
- d) bota

2. kantoietako

- a) izkinetako
- b) txokoetako
- c) bazterretako
- d) alboetako

3. agertzen

- a) estaltzen
- b) argitaratzen
- c) erakusten
- d) azaltzen

4. zimenduak

- a) oinak
- b) funtsak
- c) erroak
- d) oinarriak

5. kulpa

- a) hobia
- b) errua
- c) akatsa
- d) falta

6. duinagoa

- a) egokiagoa
- b) itxurosoagoa
- c) itsuagoa
- d) hegoagoa

7. eginkizuna

- a) zeregina
- b) ataza
- c) lana
- d) eginbeharra

8. zakar

- a) kirten
- b) latz
- c) gozo
- d) itsusi

9. zuhur

- a) burutsu
- b) azkar
- c) xume
- d) erraz

10. hegaldatuz

- a) desagertuz
- b) hanka eginez
- c) lehertuz
- d) hegan eginez



VII. ELEBERRIAREN LABURPENA

Irakurri eleberriaren laburpena eta erantzun galderei

Pilar Goytisolo eta Iñaki Abaitua medikuak dira, neurozirujaua eta ginekologoa, hurrenez hurren. Seme bat dute, Loiola, eta Donostian bizi dira. Bi medikuen familiak Ozteta deritzon herri imajinariotik datoz. Pilarren aita nazionalekin Gerra Zibilean ibilitakoa da: aberatsa, euskaltzalea, baina frankista. Abaituaren familia aldiz klase beherekoa, jatorriz artzainak, eta abertzaleekin Gerra Zibilean ibilitakoak, galtzaileen bandokoak dira.

Eleberriko beste bikote protagonista, Julia eta Martin dira. Julia eta haren bikotekidea, Martin, Martutenen bizi dira, Villa Flores edo “sorgin etxe” deritzon mende hasierako etxe-jauregi burgesean. Iñaki Abaitua haren ginekologoa da. Julia Gipuzkoako Aldundian itzultzailea da. Martin, berriz, euskal eleberrigile ezaguna. Martinek joera du Juliarekiko erlazioa bere literaturan erabiltzeko, Faustino Iturbe eta Flora Ugalde ezizenak erabiliz. Juliak seme bat du, Zigor, aurreko harreman batekoa, non aita ETako partaide zen eta Iparraldean izan zen, ezbeharrak ala hilketa izan zen garbi ez dagoen trafikotik istripu batean. Juliaren amaren parteko Etxezar baserria lehengusu txiki maiorazko mozkorrak zatika-zatika ia erabat saldu eta desegin du. Pilarren aita frankistak Martinen aitari kendu zizkion lurrak eta eraikin bat Martutenen gerraondoan, eta bertan sortu zuen klinika bat, non egun Pilarrek lan egiten duen.

Lynn, Columbia Unibertsitateko soziologo amerikarra, lankide antropologo bati lagun eginez dator Donostiara, opor moduan sabbatiko bat pasatzera. Julia eta Martinen etxean hartzen du ostatu, goiko solairuan. Bikotearen lagun den Harri Gabilondo Abaituaren lankide da; horren bidez, Lynnek Abaitua ezagutzen du. Max Frischen *Montauk* eleberri erdi-autobiografikoa dela medio, Abaitua eta Lynn hizketan hasi, eta eleberriko protagonista amerikarrari ere Lynn deritzola konturatzen da; Abaitua eleberriko Frischen funtzio antzekoa jokatzeko hasten da. Eleberriko Lynn eta Frischen arteko erromantzea, NY ondoko Montauk hirian gertatzen dena, Lynn eta Abaituak Martunen izango dutenaren parekide eta erreferentzia literario bihurtzen da. Abaituak bere lagun minenarekin, Kepa Ruiz, Iparraldera egiten duen txango batera gonbidatuko du Lynn. Bordeleraino bidaiaturik, txangoan kontsumatzen dute harremana.

Lynnek, Abaituari ezer esaten ez badio ere, minbizia du garunean. Pilarren klinikan operatzea tokatzen zaio, eta, azken orduko urgentzia eta erabaki batzuk direla medio, hark operatzen du. Elkarren berri ez dakitelarik, Pilarrek huts egiten du operazioan, eta Lynn elbarriturik uzten du hemiplegiako. Pilar beldur da bere klinikarako proiektu eraberritzaile guztiak eta bere karrera kinkan egongo diren, istripuaren ondorioz.

Abaituak, Lynnen eraginez, gaztaroko izpiritu idealistagoa berriro ere berraurkiturik, ospitaleko mediku lankideek egindako hutsegiteak salatzen ditu eta biktimen familiak ohartarazten. Abaituak, klinikaren buru izatera deitua bazen ere, aurrea hartzen dion Arrese lankideak hutsegiteotan duen konplizitatea ere argi uzten du. Kode etiko medikoa urratu duela argudiatuz, lankideek Abaituari espedientea zabaltzea lortzen dute eta mediku-lanetan suspenditzen dute.

Azkenean, Lynnek, Pilarrek eta Abaituak elkarrekin izan dituzten erlazio eta istripuen berri dute, baina Abaituak Lynn utzi egiten du, hura ezin duela maite erabakita, eta Pilarrengana itzultzen da. Juliak ere, inguruan dakuskien aldaketen ondorioz, eta Martinen infideltasunak eta bizitza pertsonala literaturan erabiltzeko duen joera exhibizionista ezin jasanik, hura uztea erabakitzen du. Martinek, gainera, minbizia duela jakinarazten diote, eta laster hiltzera doalako berriei aurre egin behar die.

Juliak, ezustean, Abaituaren lagun Kepa topatzen du, eta elkarrekin ematen dute gau zoragarri bat Maria Kristina hotel donostiarrean, zinemaldiaren abaroan. Kepa Londresera abiatzen da euskarazko eskuizkribu batzuk erostera, baina, atera aurretik, Julia eta semea gonbidatzen ditu, Floridara eraman behar duen belaontzian berarekin bidaia dezaten. Juliak ez du erantzun garbirik ematen.

Eleberria Bilbo ondoko Loiu aireportuan amaitzen da. Pilar eta Abaitua Milanera doaz, Pilarren antza duen Modiglianiren pintura bat ikustera. Julia, Gabilondo lagunari lagunduz, Londresetik datorren horren alabari ongietorria ematera doa Loiura; Kepa ere Londresko hegaldi berean dator bueltan Bilbora. Eleberria amaiera zabal hori hetsi gabe amaitzen da.

1. Pilar eta Iñaki ...
 - a. medikuak dira biak.
 - b. ez dira herri berekoak.
 - c. Gerra Zibilean ibili ziren.

2. Martin eta Julia bizi diren etxea ...
 - a. mende hasierako baserri baten gainean eraiki zuen Martinen aitonak.
 - b. "Sorgin etxe" izenez ezagun da.
 - c. aurreko mendeko etxe-jauregia.

3. Julia(k) Gipuzkoako Aldundian ...
 - a. itzultzaile dabil.
 - b. lana laga du bere kabuz lan egiteko.
 - c. lan egin nahi du.

4. Lynn soziologoak Abaitua ...
 - a. Harriren bitartez ezagutu zuen.
 - b. Pilarren bitartez ezagutu zuen.
 - c. Keparen bitartez ezagutu zuen.

5. Pilar, Lynni egindako ebakuntzaren ondorioz ...
 - a. klinikarako dituen proiektu berritzaileak abian jartzera animatu da.
 - b. kezkatu dago klinikaren eta bere etorkizunaz.
 - c. Abaituarekin haserre dago.

6. Juliak, ...
 - a. Martinekin haserre badago ere, berarekin jarraitzea erabaki du.
 - b. Martinen berriak ezagutu ostean, joateko erabakia baztertu du.
 - c. Martin urte askotan jasan ondoren, alde egitea erabaki du.

VIII. ELEBERRIKO PERTSONAIAK

Julia

Itzultzailea eta Martinen bikotea. Seme bat du, Zigor, Martin ezagutu aurreko harreman batekoa. Hari buruz dakigun gehiena Martinen liburuetan azaltzen den Flora Ugalde pertsonaiaren bidez deskubritzen dugu, nolabait ere idazlea Juliaren figuran oinarritzen delako pertsonaia deskribatzeko. Adibidez, badakigu orezta bat duela lepoan, eta ispilu aurrean egon ohi dela hari begira, edota abentura bat izan zuela poeta gazteago batekin, Martinekin zuen harremana haustekotan izan zen batean (ondoren, ohe ertzean negar-zotinka, barkamena eskatu zion idazleari).

Abaitua

Iñaki izenekoa, guztiek ezagutzen dute abizenetik, Abaitua. Pilarren bikotea, seme bat dute, Loiola. Dotorea eta arrakasta handiko medikua da. Denek dute gizon noble eta ohorezkotzat, emaztearen klinika pribatuan jarduteari uko egin diolako, hots, horrek ekarriko liokeen dirutzari muzin diolako. Horren ordez, osasun-sistema publikoan dihardu, ginekologian, eta mundu guztiak inguruetako medikurik onena kontsideratzen du. Arrakasta-irudi horren atzean, hala ere, emaztearekin duen harremana onena emanda dago eta, esaterako, azken aldian ohe banatan lo egiten dute.

Lynn

Soziologo amerikarra. Martinen etxean ostatu hartuko duen *penthouse girl*-a. Ezagutu arte, hala deitzen dio idazleak. Liburu bat du gogoko beste guztien gainetik, Max Frisch-en *Montauk*, eta liburu hartako neska protagonistaren (hura ere Lynn izenekoa) esaldiak eta pasarteak hitzez hitz errepikatzen gai da. Behin eta berriro ahoratzen ditu esaldiok eta itzultzen da *Montauk* liburura, hala Martinekin dituen elkarrizketetan nola Abaituarekin duen harremanean.

Martin

Idaztearekin obsesionatuta bizi den idazlea dugu Martin. Izan ere, haren bizitzan idazteak lehentasuna du gainerako arlo guztien gainetik, edozein delarik ere: Juliarekin duen maitasun harremana, aita zaharraren zaintza eta familiako ardurak edo adiskidetasuna. Horiek guztiak idaztearen menpe kokatzen ditu eta, arrakasta handia izanagatik, bere izaera neurotikoak ez dio zoriontsu izaten uzten. Burges txikiaren irudira eginiko gizona, Martuteneko etxe batean bizi da, zailtasun materialetatik salbu, eta idaztera dedikaturik.

Pilar

Medikua. Familia aberats batean sortua, Goytisolotarrenean. Gerra Zibilean familia, nahiz euskaldun peto-petoak izan, frankisten alde lerratu zen eta horrek hainbat etekin ekarri zizkien gerraostean. Pilarren aitak klinika pribatua eraiki zuen Donostian eta bertan lan egiten dute haren seme-alaba eta suhiek (Abaituak izan ezik). Aita hiltzean, gainontzekoek dirua egin eta ospitalea saldu nahi izango dute, baina Pilar proiektua biziberritzen saiatuko da. Horrek familiako gainerakoekin haserretzera eramango du.

Jarraian, pertsonaia horiek esandako /pentsatutako zenbait esaldi dituzu.

Lotu esaldia pertsonaiekin:

1. Uste baino korapilatsuago dira gauzak
2. Badakizu, herentziaren istiluak
3. Idazle txar oro da patetikoa, baina areago ni neu naizen espezie horretakoa baldin bada
4. Eskularruak
5. Oso ederrak dira
6. *Frischen obrarik onena Gatenbein da*
7. Inork inoiz jakingo ez duela segurtasunean botoi bat sakatu hutsarekin pertsona bat hil ahal izango bazenu, egingo zenuke?
8. Bikote guztiok dauzkagu arazoak
9. Lorerik gabeko etxean, maitasunik ez
10. Gorroto ditut katuak, pertsonak beste ia
11. If life gives you lemons make lemonade
12. Lehen lur eremua honaino iristen zen
13. Posible ote da sinestea ahaztu egin zaiola joan den astean Harrirekin alderantzikoa defenditzen zuela?
14. Because you are a writer
15. ... barregarri gelditzeko beldur, duintsunak eta konpostura gorde beharrak. Martini berari gertatzen ahal zaion zerbait.
16. Begi urrezatuak, ederrak bezain tristeak
17. Populazio aborigenaren interes antropologikoak erakarrita etorri naiz.
18. Oso ebakuntza erraza da eta esku onean dago umea
19. The core tenants that animate almost all ethical conversations in obstetrics are autonomy, beneficence, nonmaleficence, and justice.
20. Egunen batean arrantzara irten behar genuke Ameriketara joan nadin baino lehen.

IX. ERANTZUNAK

IV. RAMON SAIZARBITORIA : LEHEN HURBILKETA

Maisua
Dotorea
Iraultzailea
Japoniako zetaz bildutako makila
Goi-mailako sukaldaria

V. RAMON SAIZARBITORIAREN BIOGRAFIA: ZENBAIT ZERTZELADA

A testua

1.-GEZURRA	2.-EGIA	3.-GEZURRA	4.-EGIA	5.-GEZURRA
-------------------	----------------	-------------------	----------------	-------------------

B testua

1.- Lehenak Saizarbitoria idazlea, egilea, aurkezten du, batez ere. Eta bigarrenak, berriz, bere bizitzari buruzko datu pertsonalak ere ematen ditu. Bigarren testua irakurlearengandik hurbilago dago hainbat molderi esker: "idazle aski ezaguna" "ez oso gustura" "Gros auzora ezkondu zen". Horretaz gain, aipamen ugari egiten ditu idazlearen bizimoduaren gainean: Larramendi kalean bizi izan zela umetan, gurasoak nongoak ziren, nora ezkondu zen...

2.- Testuak irakurle ezberdinek irakurriko dituztela.

VI. MARTUTENE ELEBERRIA

b.

d da aukera zuzena: Gizon eta emakumeen arteko komunikazioa ardatz duena.

c.

- Emakumeen eta gizonen arteko komunikazioa
- Euskal gatazka
- Erru pertsonalak
- Medikuntza
- Idazle ofizioa

e.

1.-d	2.-a	3.-d	4.-d	5.-b	6.-a	7.-c	8.-d	9.-a	10.-d
------	------	------	------	------	------	------	------	------	-------

VII. ELEBERRIAREN LABURPENA

1.-a	2.-b	3.-a	4.-a	5.-b	6.-c
------	------	------	------	------	------

VIII. ELEBERRIKO PERTSONAIAK

1.-Julia	2.-Pilar	3.-Martin
4.-Abaitua	5.-Lynn	6.-Martin
7.-Abaitua	8.-Pilar	9.-Martin
10.-Martin	11.Lynn	12.-Martin
13.-Julia	14.Lynn	15.-Julia
16.-Martin	17.-Lynn	18.-Abaitua
19.-Lynn	20.-Lynn	

X. ERABILITAKO TESTUAK

- <https://bilbozaharra.eus/forum-eta-irakurraldia/bilbo-zaharra-forum/>
- https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_content&view=article&id=4232:ramon-saizarbitoriaren-martutene-nobelak-jasoko-du-literaturako-euskadi-saria&catid=121&Itemid=619&lang=es
- https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa833_32.pdf
- <https://periodistas-es.com/martutene-la-gran-novela-de-ramon-saizarbitoria-9056>
- https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa833_23.pdf
- <https://www.euskaltzaindia.eus/euskaltzaindia/komunikazioa/plazaberri/6100-bernat-etxepare-hizpide-bilbo-zaharra-forum-jardunaldietan>
- https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa833_28.pdf
- https://www.erein.eus/media/recortes_prensa/recorte_prensa833_3.pdf
- <https://www.eitb.eus/es/videos/detalle/1334262/video-martutene-ramon-saizarbitoria-version-castellano/>
- <https://www.eitb.eus/eu/bideoak/osoa/870797/martutene-ramon-saizarbitoria/>